

Dirubilketa hobetzeari esker, Arabako toki erakundeek TEFFFren azken ordainketa jaso ahal izango dute

Arabako diputatu nagusiak baieztatu duenez, Foru Aldundiak 20 milioi euro baino gehiago banatu ahal izango ditu udal eta kuadrillen artean laugarren hiruhilekorako, dirubilketaren itxierako aurreikuspenak hobetu izanari esker

Gasteiz, 2020ko urriaren 16a. Ramiro González Arabako diputatu nagusiak iragarri duenez, dirubilketa hobetzeari esker, Arabako toki erakundeek jaso ahal izango dute Toki Erakundeak Finantzatzen Foru Funtzaren (TEFFF) laugarren eta azken ordainketa. Lehen aurreikuspenen arabera, % 20 inguruko jaitsiera izango zela aurreikusi zenean, bazirudien diru itzultze hori bertan behera geratuko zela. Hala ere, aurtengo dirubilketaren itxierako balioespenak hobetu izanari esker, aldundiak azken ordainketa hori egin ahal izango du, eta 20 milioi euro baino gehiago banatu ahal izango ditu udal eta kuadrillen artean.

Ordainketa aste batzuk barru egingo da, toki erakundeetarako finantzaketaren eta aurrekontuen arloko zenbait neurri ezarriko dituen foru arauaren aldaketa indarrean sartzen denean. Baina toki erakundeentzat albiste positibo gehiago ere badago: aldundiak bere zorpetze ahalmena partekatuko du hala egitea egokitzat jotzen duten toki erakundeekin. Zorpetze ahalmen hori Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan adostu zuten.

Krisialdiaren hasieran aurreikusi baino hobea

Tokiko finantzaketarako zenbatekoak ziurtatu dira, atzo Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak Arabako dirubilketan % 13,8ko beherakada izango dela aurreikusi ondoren, krisialdiaren hasieran aurreikusitakoa baino txikiagoa. Guztira, Arabak iaz baino 337,1 milioi euro gutxiago bilduko ditu, osasun krisiaren eta jarduera etetearen eraginik gogorrena jasan duten sektoreei laguntzeko hartutako tributu neurrien ondorioz.

Hasierako aurreikuspenen hobekuntzak zerikusia dauka jarduera ekonomikoak beherakada txikiagoa izan izanarekin. Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak atzo ziurtatutako datuen arabera, ekonomia 2021ean berraktibatuko da. “Suspertzea ez da berehalakoa izango. 2021erako aurreikuspenek diote suspertze urtea izango dela, baina ez gara iritsiko pandemiaren aurreko mailetara”, ohartarazi du diputatu nagusiak. Zehazki, datorren urteko dirubilketa % 6,9 inguru haziko dela aurreikusi da, alegia, 2020an baino 146,3 milioi gehiago.

Alde horretatik, hazkunde horrek eta euskal aldundientzako zorpetze aukera berriak duten garrantzia nabarmendu du Ramiro Gonzálezek. “2021erako, susperraldiko aurrekontuei heldu ahal izango diegu. Murrizketarik gabeko aurrekontua; aurrekontu garrantzitsua, zerbitzu sozio sanitarioak indartzeko eta enplegua berreskuratzeko”, iragarri du Arabako agintariak.

2020aren itxierako aurreikuspena, tributuen arabera

2020rako PFEZaren bidezko dirubilketa % 3,4 murriztuko dela aurreikusi da, 2019an bildutakoarekin alderatuta. Epigrafe horretan islatzen da pandemiaren bilakaera, baina ez hori bakarrik; baita langile autonomoen ordainketa zatikatuak eteteko tributu neurria ere (lehen hiru hilabeteetan). Kontzeptu hori dela eta, Arabako Foru Ogasunak 21,5 milioi euro gutxiago bilduko ditu, hau da, atal horretan lurraldean dirubliketa % 70,8 jaitsiko dela aurreikusi da.

Sozietateen gainera zergari dagokionez, 2019ko datuekin alderatuta % 34,5 jaitsiko dela kalkulatu da (73,6 milioi), neurri handi batean, krisia arintzeko onetsitako tributu neurriengatik, hala nola aurreko urteetako zerga oinarri negatiboen konpentsazioan mugarik ez aplikatzeko aukera, gastu kengarriaren ehunekoa handitzea Arabako mikroenpresentzat, edo ordainketa zatikatua bertan behera uztea enpresa ertain eta handientzat, hain zuzen, eragiketa bolumena % 25 murriztu zaienez.

Bestalde, zeharkako zergek % 16 egin dute behera, eta bereziki BEZak. Zehazki, zerga horretan aurten % 18,7ko jaitsiera izango dela aurreikusi da, kontsumoak eta jarduera ekonomikoak behera egitearen ondorioz.